

Saltoki berriak zazpi lanpostu sortu ditu

EROSKI-K ZORTZIGARREN FRANKIZIA SUPERMERTATUA IREKI DU ARABAN

- **Ogia egiteko labea du, okintzako produktu egin berriak saltzeko.**
- **EROSKI-k Merkataritza frankiziarik onenaren Espainiako saria jaso du, Frankiziaren Nazioarteko 25. erakusketan.**

Gasteiz, 2014ko azaroaren 10a.- [EROSKI](#)-k EROSKI/City erako frankizia supermerkatu bat inauguratu du, Gasteizko Iruñea kaleko 27-29.ean (Araba). 520 metro koadro baino gehiago ditu dendak, eta 3.500 produktu eskainiko ditu, goi mailako ekoizleenak, EROSKI markakoak eta tokiko ekoizleenak. Saltoki berriak zazpi lanpostu sortu ditu.

EROSKI/City supermerkatu berriaren eskaintza ugari horretan, produktu freskoak nabarmentzen dira, bereziki tokian tokiko eta sasoiari sasoiko frutak eta berdurak. Produktu osasungarrien sorta ere zabalduko du, eta garrantzi handiagoa hartuko du. Ogia egiteko labea ere badu, eta okintzako produktuak egin berriak salduko dira egunero. Hilero-hilero eskaintzak eta sustapen kanpainak izango dira, kontsumitzaileei aurrezten laguntzeko.

"Erosketak azkar eta eroso egiteko aukera ematen du EROSKI/City supermerkatuak. Eskaintza ere berezia du, elikagai freskoetan eta tokikoetan oinarritua hein handian, kontsumitzaileek gero eta estimu handiagoan dituzte eta. Hori lortzeko, nekazaritzako elikagaiak lantzen dituzten euskal hornitzaileekin lankidetzak hitzarmenak egin ditu EROSKI-k", adierazi du Enrique Martinezek, EROSKIren Frankizien Saileko zuzendariak.

Tokiko produktuak

EROSKIren politika komertzialean, ahalik eta gehiena indartu nahi dira tokiko ekonomiak, aberastasuna sortzeko ingurunean eta elikagaien industria eta gizartea eta ekonomia oro har indartzeko. Alde horretatik, kooperatiba Euskal Autonomia Erkidegoko 450 hornitzaileekin baino gehiagorekin ari da, eta urtero, sektore horretako 10.000 produktu inguru merkaturatzen ditu 400 milioitan erositak.

Tokiko produktu horiek eta bereziki sasoiko produktu freskoek leku berezia hartzen dute EROSKIren saltokietan Zurekin denda eredu berriaren bitartez.

Merkataritza Frankiziarik Onenaren Espainiako Saria

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria Tel: 946 211 214
OSCAR GONZALEZ URIARTE

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

ZIORTZA BERISTAIN
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

www.eroski.es > [Notas de prensa](#)
www.consumer.es

Estatuan frankizia bidezko supermerkatuak dituen bigarren taldea da EROSKI gaur egun Kooperaribak Merkataritza frankiziarik onenaren Espainiako saria jaso du, orain gutxi, Frankiziaren Nazioarteko 25. erakusketan. "Autogestiorako kultura kooperatiboa da gurea eta eredu horrek oso ongi bat egiten du ekintzaileen filosofiarekin, haiek etorkizuneko aukera gisa ikusten baitute EROSKIren frankizia sarea: negozio eredu lehiakorra eta errentagarria eskaintzen dute frankiziek, eta ekoizleentzat ere errentagarriak izan daitezke", adierazi du EROSKIren Frankizien Saileko zuzendariak.

Gasteizko frankizia supermerkatu berri hori irekita, kooperatiba sendotzen ari da bere zabalpen plana, frankizia ereduaren bidez. EROSKIk 44 frankizia denda ireki ditu 2014ko lehen seihilekoan. 280 lanpostu sortu ditu, eta 10,5 milioi euro baino gehiago inbertitu ditu.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria Tel: 946 211 214
OSCAR GONZALEZ URIARTE

comunicacion@eroski.es

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**

ZIORTZA BERISTAIN
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

www.eroski.es > [Notas de prensa](#)
www.consumer.es